

BOTA BERTSOA

**DENA DA BERRIA**

UNAI MENDIZABAL JAUREGI

DOINUA: GURETZAT BERDIN DIRA

IRAILA IRITSI DA
ZIRRARAGARRIA
IKASTURTE HONETAN
DENA DA BERRIA.

PENTSATZEN JARRI ETA
DENA DUT ZALANTZAN
TRIPA BARRUAN DAUZKAT
XOMORROAK DANTZAN.

IRAKASLE BERRIA
EZAGUTU DUGU
ETA IZANGO DA SUPER
JATORRA SEGURU.



GOGOA DAUKAT JADA
JOLASTEN HASTEKO,
LAN EGIN ETA GAUZA
PILA IKASTEKO.

JANGELA, PATIOA,
LIBURUTEGIA...
EZ OTE NAIZ GALDUKO...
HAU DA KOMERIA!

ZENBAT PASILO LUZE
ETA ZENBAT GELA
MAPA BAT BEHARKO DUT
PIRATEK BEZELA.

BAINA ALTXOR HANDIENA
JOAN GABE BILA
AURTEN EGINGO DUDAN
LAGUN BERRI PILA!

GURE ESKOLA BERRIA
IRUDITZEN ZAIT GUAI
ERRALDOIA DA BAINA
POLITA ERE BAI.

ETXEKOENTZAT ERE
POLITA IZANGO DA
DENA ERAKUTSIKO
NIEKE GUSTORA.